


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Gradu amaierako lana

# **Karrantzako kultura-ondare megalitikoa lehen hezkuntzarako baliabide didaktiko eraginkor gisa**

Lehen hezkuntzako gradua

**Egilea:** Hegoi Santisteban Mendizabal

**Tutorea:** Ainhoa Rodriguez Lopez

Leioan, 2016ko azaroaren 28an

## Aurkibidea

<b>Laburpena.....</b>	<b>4</b>
<b>Sarrera.....</b>	<b>5</b>
<b>Marko teorikoa.....</b>	<b>6</b>
<b>Zer da kultura ondarea? .....</b>	<b>6</b>
<b>Kultura ondarea, baliabide didaktiko aberasgarria.....</b>	<b>6</b>
<b>Kultura ondarea baliabide didaktiko gisa erabiltzearen helburuak.....</b>	<b>7</b>
<b>Kultura ondarea kontserbatzea .....</b>	<b>8</b>
<b>Karrantzako monumentu megalitikoak kultura ondare.....</b>	<b>8</b>
<b>Metodologia.....</b>	<b>9</b>
<b>Proposamen didaktikoa .....</b>	<b>9</b>
<b>Testuingurua.....</b>	<b>9</b>
<b>Unitate didaktikoa.....</b>	<b>10</b>
<b>Helburuak eta gaitasunak.....</b>	<b>10</b>
<b>Edukiak.....</b>	<b>11</b>
<b>Metodologia.....</b>	<b>12</b>
<b>Kronograma.....</b>	<b>12</b>
<b>Sistema metodologikoa.....</b>	<b>13</b>
<b>Jarduera fitxak.....</b>	<b>14</b>
<b>Irteeraren aurretik.....</b>	<b>14</b>
<b>Irteeran zehar.....</b>	<b>18</b>
<b>Irteeraren ondoren.....</b>	<b>21</b>
<b>Unitate didaktikoaren ebaluaketa .....</b>	<b>22</b>
<b>Emaitzak.....</b>	<b>23</b>

<b>Ondorioak.....</b>	<b>24</b>
<b>Etorkizuneko ikerketa ildoak.....</b>	<b>25</b>
<b>Erreferentzia bibliografikoak.....</b>	<b>26</b>
<b>Eranskinak.....</b>	<b>27</b>
<b>1-Ikerketa Fitxa -Trikuharria.....</b>	<b>27</b>
<b>2-Trikuharriak harri bitxiak.....</b>	<b>28</b>
<b>3-Tumulu bat egiteko urratsak.....</b>	<b>29</b>
<b>4-Ostilamendua sortuz.....</b>	<b>33</b>
<b>5-Ibilbideko plano eta informazioa.....</b>	<b>36</b>
<b>6-Tumulua eraikitze gida.....</b>	<b>37</b>
<b>7-Betetzeko fitxen erantzunak, ikasleek eginak. ....</b>	<b>39</b>
<b>8-Esku-hartzeko argazkiak.....</b>	<b>50</b>
<b>9-Bibliografia.....</b>	<b>52</b>

## **Laburpena**

Lan honetan, Karrantzako monumentu megalitikoek ikerketa aurkezten da, hauek lehen hezkuntzako ikasgelan duten baliagarritasuna eta eraginkortasuna agerian jarritz. Helburua bertako kultura ondarea garatzea eta hainbat arlotako jakintzak jorratzeko tresna bezala erabiltzea da. Ikerketa honi jarraituz, arlo honetan bertan etorkizunean garatu daitezkeen baliabide didaktikoetarako eredu bezala balio dezakeen unitate didaktiko bat proposatzen da.

## **Hitz gakoak**

Bertoko kultura ondarea, kultura ondarearen didaktika, kultura ondarea kontserbatzea, monumentu megalitikoak, Karrantza Harana.

## **Resumen**

En el presente trabajo se contempla el estudio de los monumentos megalíticos del Valle de Carranza, estableciendo su idoneidad y viabilidad en el aula de Primaria, con el objetivo de formar en el patrimonio local y utilizar el mismo como instrumento para el desarrollo de nociones de diferentes ámbitos. A partir de este análisis, se propone un diseño de unidad didáctica, que puede servir de guía para futuros recursos didácticos del mismo ámbito.

## **Palabras clave**

Patrimonio cultural, didáctica del patrimonio, conservación del patrimonio, monumentos megalíticos, Valle de Carranza.

## **Abstract**

In this present work the study of the megalithic monuments from Carranza is shown, establishing its suitability and viability in primary education, with the double objective of training in the local heritage and using it as an instrument for the development of knowledge in other areas. On the basis of this analysis a teaching unit has been created to be used as a guide of future teaching resources in the area.

## **Keywords**

Cultural heritage, heritage education, heritage conservation, megalithic monuments, Karrantza Valley.

## Sarrera

Artea eta kultura-ondarearen eragina oso garrantzitsua da edozein gizartetan. Era berean, artea haurren garapen kognitiboan eraginkorra izan daiteke eta hau lantzeak onura asko izan ditzake hezkuntzan.

Artea lantzean, haurrek bizitzan zehar izan ditzaketen arazoei aurre egiteko gaitasun handiagoa izango dute, izan ere, zientzia honen bidez; sormena, irudimena, behaketa eta adierazgarritasuna garatzen dira. Gainera, beren burua hobeto ezagutu eta munduarekiko ikuspegi zabalagoa izaten lagunduko die.

Beste aldetik, tokian tokiko arte kultura landuz, haurrek beren inguruko natura, gizarte eta historia hurbilagotik ezagutu eta ulertuko dituzte. Horretarako, ikasketa prozesuan, haurrak arte museoetara, naturara edo bestelako lekuetara hurbildu daitezke, hauetan dauden kultura-ondasunez baliatuz ikasketa aberasgarri bat lortzeko.

Lan hau azken puntu horretan dago oinarritua. Lehen hezkuntzako ikasgelan kultura ondarea lantzea baliabide didaktiko eraginkorra da eta hori baieztatzeaz gain, Bizkaiko kultura ondarea lantzeko unitate didaktiko bat aurkezten dut, zehatz-mehatz, Karrantzako Neolitoko ondareetan oinarritzen dena.

Alde horretatik lan honek atal teoriko bat du, horretan, kultura ondarea baliabide didaktiko gisa erabiltzeak dituen onurak azaltzen dira. Bestalde, lanaren ardatza, esku-hartze bat da. Esku hartze honetan Karrantzako Neolitoko ondareak dira baliabide didaktikoa eta hau lantzeko unitate didaktiko oso bat aurkezten dut lan honetan.

Baliabide didaktiko eraginkor eta aberasgarri bat izateaz gain, gai hau lantzeko hainbat arrazoi ditut. Alde batetik, egitura artistiko hauek ez dira museo edo arte erakusketetan dauden artelanen modukoak. Inguru basati batean daude kokatuak eta horrek are aberatsagoak izatea egiten du, baina aldi berean, hauen kontserbazioa eta ezagutza zailagoak izatea ere bai. Horregatik, lan hauek gure kulturaren eta historiaren aztarna garrantzitsuak izanik, zaintzeko eta bizirauteko modurik onena, belaunaldi berriei ezagutaraztea da.

Beste aldetik, Karrantzako inguruak eta nik lotura estua daukagu. Nire bizitzako aldi luze batean han bizi izan naiz eta ondo ezagutzen dut Neolitoko ondareak dauden inguru hori. Haurra nintzenean inguru hori ezagutzeari esker, hainbat jakintza bereganatzeko aukera izan nuen, naturaren eta bertan antzina bizitakoen bizitzen ingurukoak batik bat. Niretzat aberasgarria izanik, lehen hezkuntzako ikasleentzat ere aberasgarria dela uste dut eta hori erakutsi nahi dut lan honetan.

## **Marko teorikoa**

### **Zer da kultura ondarea?**

Kultura ondarea terminoak ez dauka definizio zehatzik eta historian zehar arlo askori erreferentzia egiteko erabilia izan da, hainbat elementu bere barnean kokatuz eta beste hainbat baztertuz. Kontzeptu hau modu askotara uler daiteke eta horrek eragina izan dezake helburu didaktiko bat izaterakoan.

Gizarte ezberdinen errealitateetan oinarrituz, termino horren barnean hainbat arlo sartzen dira, eta hauek sailkatzerakoan banaketa handiak egin daitezke horietako bakoitza adar akademiko batek iker dezakeelako. Baina helburua kultura ondarea hezkuntzan helaraztea bada, terminoa bere orokortasunean hartu beharra dago gaur egungo nahiz iraganeko kulturen ezaugarriak ulertu ahal izateko (Cuenca, 2014).

Aurreko belaunaldiengandik jasotzen ditugun aspektu guztiak, gizateriaren ondare dira eta gaur egun hezkuntzaren bidez ondare hori hurrengo belaunaldiei helarazten diegu. Bere esanetan, oraina ere kultura ondarea da eta, beraz, heredatutako elementuez gain, norberak barneratutako aspektuak ere multzo horretan sartzen dira. Heredatu edo barneratutako ondasun horiek mantendu nahi ditugu balioa ematen diegulako edo baliagarritzat hartzen ditugulako (Colom, Sarragona eta Vázquez 1998).

### **Kultura ondarea, baliabide didaktiko aberasgarria**

Kultura ondarea hezkuntzan baliabide didaktiko gisa erabiltzea aberasgarria izan daiteke zentzu askotan. Kultura ondarea aztertuz, iraganean pertsonen hartutako erabakien bidez oraina sortu dela uler daiteke, hau da, kultura ondarea ikusgai dugun iragana dela, eta hau aztertzeak, zentzu batean edo bestean, aurreko garaietara hurbiltzen gaituela.

Aurreko gizakien herentzia diren eta sinbolismoz eta esanahiz beterik dauden elementu hauek, iraganera bidaiatzen laguntzen dute eta horren ondorioa historia modu ulergarriago batean ikastea da. Iraganekoak ziren gertakari nahiz sentipenak zuzenean helarazten dizkigute. Denboran zehar gizakien arteko harremana mantentzeko modua dira, izan ere, denbora aurrera doan heinean, espazioa objektuz betetzen da eta hauek, aztarna bihurtzen dira (González eta Pagès, 2005).

Historia, kultura edo gizakia aztertzen dituen ekintza didaktiko batean erakuts daiteke iragana, gaur egun ditugun jakintzetatik aztertzen dela, hau da, orainetik. Horren ondorioz

ikasleak loturak sor ditzake iraganaren eta orainaren artean eta hausnartuz ohar daiteke orainean hartzen diren erabakiek etorkizunean ondorioa dutela (Koselleck, 1993).

Eskolan kultura ondarea lantzean, honen barnean dauden hainbat arlo hartu behar dira kontuan: artea, ohiturak, teknologia eta natura, hau da, gizarteak sortutako edozer edo honekiko eragina izan duen edozein elementu. Ez dira artea edo historia banaturik erakutsi behar, kultura ondare bezala baizik. Iragana orainean ditugun baliabideekin ikasiz, ikasleek iraganeko gizarteak ulertu eta balio eta pentsaera berriak bereganatuko dituzte. Horri esker, beren ingurunea edo edozein gizartek gaur egun bizi duena hobeto ulertuko dute (Valdera, 2011).

### **Kultura ondarea baliabide didaktiko gisa erabiltzearen helburuak**

Kultura ondarearen didaktika faktore garrantzitsua izan daiteke umeei bizitzako oinarrizko balio garrantzitsu asko garatzeko; kulturen arteko errespetua, hiritar izatea eta demokrazian bizitzea eta balio historiko, artistiko eta etikoak aintzat hartzea, izan ere horiek gizarteko desorekak eta bazterketak ekiditen dituzte. Gainera, gizartearekiko jakintzarako iturri aberasgarria izan daiteke iraganeko gertakarien inguruko informazioa jasotzeko. Kultura ondarearen behaketa, ikerketa, esperimentazio eta hausnarketaren bidez ikasleek historia eta gizartearekiko duten interesa areagotu daiteke. Gainera, gaur egungo errealitatearen inguruko ikuspuntu kritikoa sortzea eragin dezake oraindik gizartean dirauten iraganeko aztarnak beste perspektiba batetik ikustean (González, 2006).

Kultura ondarearen ahalmen didaktikoa mugagabea da, ikasleak beren jatorri kulturalak ezagutzen laguntzeaz gain, gaur egun bizi duten inguru sozial eta kulturala uler dezaketelako. Balio hezitzaile handia du hainbat eratako prozedurak garatu eta indar ditzakeelako: hausnarketa, espazioaren azterketa, informazioa tratatzea edo denborarekiko kontzientzia izatea. Horrez gain, hau landuz egin daitezkeen jarduera praktikoei ikasleen motibazioa areagotu dezake hauek duten parte-hartze zuzenarengatik eta ikerketa egiteak haiengan sor dezakeen jakin-minarengatik (Estepa, Dominguez eta Cuenca, 1998).

Kultura ondarea iraganaren herentzia da, ikustezina den mundu batena dena eta gaur egun ikusgai dagoena. Arrazoi horrengatik, kultura ondareak herri baten, talde baten edo pertsona baten identitatea osatzen duela esan daiteke eta, beraz, ondare horren galera konponezina litzateke bai haientzat eta bai gizateriarentzat orokorrean, izan ere, identitatea ez da egoera finko bat, aldatuz eta eboluzionatuz doan prozesu bat baizik. Hezkuntzan kultura ondarea lantzeak, norberaren identitatea ezagutzen eta eraikitzen lagun dezake horretarako

bidea erraztuz. Bertakoa den ondaretik hasita, mundu osoarena den ondarea ikertuz, norbanakoak bere identitate propioa eraiki dezake, ikuspuntu kritiko eta globala izanik (González, 2006).

### **Kultura ondarea kontserbatzea**

Gaur egun, eskola da kultura ondarea ezagutu, zabaldu eta kontserbatzeko biderik aproposena. Heldua denean pertsona batek kultura ondare diren elementuak bere identitatearen atal bezala senti ditzan, honek, umea denetik ezagutu, ikertu eta gozatu behar ditu, bestela ez du inoiz berea denik sentituko. Horren ondorio litzateke, pertsonak kultura ondarea zaindu eta kontserbatzeko grinarik ez izatea. Hau honela, hezkuntza gizartearen eta kultura ondarearen bitartekaria izan behar da, hezkuntza sistemak dauka beraz honetarako giltza (Ballesteros, Fernández, Molina eta Moreno, 2003).

Kultura ondarearen inguruan egin diren ekarpen anitz aztertu eta gero, esan daiteke honen inguruan egindako historiaren irakaste-ikaste prozesuak ikasleari munduan eta gizartean kokatzen laguntzen diola. Hau honela, kultura ondarearen ikasketak oraina eta iraganarekiko jarrera kritikoak eta hausnarkorrak pizten laguntzen duela esan daiteke. Era berean, beste bizimodu, pentsaera, ohitura edo bizitza ulertzeko moduak ezagutzean, beste kulturekiko edo gure inguruan desberdina denarekiko errespetuzko jarrera sorraraz dezake. Eskola izan daiteke gizartea eta kultura ondarea lotu ditzakeen erakundea, egitura eta baliabide aproposak izateaz gain, bertan garatzen direlako gizarteko belaunaldi berriak, eta sozializatzen diren lekua da ere.

### **Karrantzako monumentu megalitikoak kultura ondare**

Karrantza Harana, Bizkaiko mendebaldean dago kokaturik, Bizkaiko haranik handiena da eta bertan 3000 biztanle inguru baino ez dira bizi. Karrantza paradisu bat da naturari dagokionez, izan ere, ez da inoiz industria handirik egon bertan eta beste ezaugarri batzuekin batera mendi artean babesturik egoteak, bertako zelai, baso eta mendiak beti bezain ikusgarri mantentzea eragin du.

Bertako Kultura ondareari dagokionez, haran honetan, garai Paleolitikoan gizakiak egon izanaren arrastoak aurkitu dira eta oso nabaria dena, Neolitiko garaian egondako abeltzain kulturaren arrastoa. Bizkaian aurkitu diren monumentu megalitikoek erdia, Karrantzakoak dira (50 inguru). Trikuharri eta tumulu hauek Neolitiko garaian bertan bizi izandako arbasoengandik izan ziren eraikiak, eta gaur egun ikusgai daude oraindik. Arrasto hauek bertan bizi izandako gizakienak ziren eta hauen bizibidea abeltzaintza eta nekazaritza



ziren. Trikuharri hauek dira lurralde honetako lehen eraikuntza arkitektonikoak. Egitura hauek, hildakoak lurperatu eta heriotza errituak egiteko erabiliak izan ziren mendeetan zehar. Monumentu megalitiko hauek Euskal Herriko kultura ondarearen elementu garrantzitsuak dira eta balio mugagabea daukate historiari dagokionez (Gorrotxategi eta Yarrantu, 1995).

Definizioz hitz egiterakoan, ingurune natural eta sozial batean (kasu honetan Karrantza haranean) gizakiok eragindako prozesu baten ondoren sortutako ondasun kulturaletan oinarritzen da gertuko kultura ondarea, eta hau gizabanako nahiz kolektibitate baten identitatearen parte ere izatera iristen dela azpimarratu dut. Hori dela eta monumentu megalitiko hauek Euskal Herritarren nahiz munduko edozein pertsonaren identitatearen zati bat direla esan daiteke.

## **Metodologia**

Lan honetako ikerketa, kultura ondarean oinarritutako eremu didaktikoaren azterketa eginez dago garatua, zehazki, Karrantzako ondare megaliticoetan. Esku-hartze honen lehen atalean gaiaren inguruko informazioa bildu eta aztertzen da eta bigarren atalean, Karrantzako ondare megaliticoetan oinarritutako unitate didaktiko bat aurkezten da. Azkenik, ikasleek egindako jardueretatik emaitzak eta ondorioak ateratzeko azterketa kualitatiboa erabili da.

## **Proposamen didaktikoa**

### **Testuingurua**

Hemen planteatzen den unitate didaktikoan, Bizkaiko kultura ondare diren Karrantzako monumentu megaliticoak lehen hezkuntzarako baliabide didaktiko gisa erabiltzen dira. Unitate didaktiko hau lehen hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei dago zuzendua.

Ikasgelan egiteko jardueraz gain, monumentu megaliticoak dauden ingurura irteera bat proposatzen da hemen, Karrantza haranera hain zuzen. Karrantzako inguru hori, mendigunea da eta hainbat monumentu megalitico daude hezkuntza arloan erabilgarriak izan daitezkeenak. Hau egiteko unerik egokiena, ikasleak historiaurrea ikasten ari direnean da, honela garai historiko hartako ezagutzak izango dituzte eta unitate didaktiko hau osagarri bat izango da jakintza gehiago bereganatzeko.

Unitate didaktikoko hainbat jarduera (1,2,3,7,9 jarduerak), lanaren muinoa direnak, praktikan jarri dira Lauro Ikastolako laugarren mailako 10 ikaslerekin, hauek ebaluatu eta horietatik ondorioak atera ahal izateko. Ikasle taldea 4. mailako 5 neska eta 5 mutilek osatu dute eta jarduera hauek egin aurretik, ez dute inoiz garai Neoliticoaren inguruko gairik landu eta horregatik unitate didaktikoa honen inguruko oso jakintza gutxirekin hasi dute .

## **Unitate didaktikoa**

Ondoren agertzen diren helburu, gaitasun eta eduki gehienak lan honen egileak proposatutakoak dira eta beste hainbat Euskal autonomia erkidegoko oinarrizko hezkuntzaren curriculumekoak (2015), zehazki lehen hezkuntzako 1. eta 2. ziklokoak.

### **Helburuak eta gaitasunak**

Atal honetan, proposamen didaktiko honen helburuak azaltzen dira. Lehenik eta behin helburu orokor bat dago eta ondoren zehaztasun handiagoko beste helburu batzuk proposamen didaktikoaren ikasketa gaiak eta horiek lortzeko bidea argitzen dutenak.

### **Helburu orokorra**

- Lehen hezkuntzako ikasgelan kultura ondarea baliabide didaktiko gisa erabiltzea tokian tokiko ondare artistikoa, historikoa eta etnografikoa irakasteko eraginkorra dela baieztatzea.

### **Helburu zehatzak**

- Karrantzako ondare megalitoak bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa irakasteko baliabide didaktiko gisa erabiltzea eraginkorra dela baieztatzea.

- Kultura ondarea heziketa prozesuan barneratzea, ikasleek hainbat arlotarako baliagarriak diren jakintzak barneratzeko; hausnarketarako gaitasuna edo ikerketarako besteak beste.

- Ikasleak kultura ondarrera eta bere ingurunera hurbilduz, haiengan kultura ondarearekiko errespetuzko jarrera sortzea eta honek duen garrantzia balioztatzea.

- Gaur egungo errealitatea ikertuz eta aztertuz iraganeko ohituretara eta historiara hurbiltzeko baliabideak eskaintzea ikasleei.

- Kultura ondarearen eta zehazki Karrantzako monumentu megalitoen kontserbazioa ziurtatzea belaunaldi berriak horretarako heziz.

- Lehen hezkuntzako ikasleentzat, kultura ondare diren eta naturan kokatuta dauden monumentuak ezagutu eta balioztatzen ikasteko jarduerak proposatzea.

- Bakarka nahiz taldean, aurretik emandako helburuetatik abiatuta objektu bat egiteko prozesuari buruz hausnartzea, eta urrats bakoitzaren ondoren lanaren egoera berrikusi eta balioztatzea.

- Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko. (EAEko curriculum, Artea)

## **Gaitasunak**

- Mundu fisikoa ikertu eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. (EAEko curriculum)
- Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna. (EAEko curriculum)
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. (EAEko curriculum)
- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.
- Era askotako materialak erabiliz lan plastikoak egiteko gaitasuna.

## **Edukiak**

### **Kontzeptu edukiak**

- Karrantzako ondare megalitoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.
- Kultura ondare kontzeptua.
- Denbora historikoaren ideia, iraganaren eta orainaren harremana eta emandako aldaketak.

### **Prozedura edukiak**

- Ingurunean eta erakusketa edo museoetan dauden lan plastikoen eta ikusizko lanen berezko deskribapena eta azalpena. (EAEko curriculum, 1. zikloa)
- Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere. (EAEko curriculum, 2. zikloa)
- Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak aztertzea, eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruaren ezaugarriei buruz eztabaidatzea eta ikertzea. (EAEko curriculum, 1. zikloa)
- Objektuen eta elementuen naturalen aukera plastikoak eta adierazpen-aukerak ikertzea. (EAEko curriculum, 2. zikloa)
- Espazioak eta denborak esku hartzen duten naturaguneko eta eguneroko bizitzako alderdien interpretazio plastikoa. (EAEko curriculum, 1. zikloa)

### **Jarrera edukiak**

- Materialak eta teknikak manipulatzeko, material eta teknika horiek erabiliko diren edukira egokitze, eta egindako aurkikuntzak irudikapen plastikoetan erabiltzeko interesa. (EAEko curriculum, 2. zikloa)
- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.
- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.

## Metodologia

### Kronograma

Irteeraren aurretik				Irteeran zehar	Irteeraren ondoren
<b>Saioak</b>					
1. Saioa	2. Saioa	3. Saioa	4. Saioa	5. Saioa	6. Saioa
Ikasgelan (30 min)	Ikasgelan (60 min)	Ikasgelan (60 min)	Ikasgelan (60 min)	Karrantzan (Egun osoa)	Ikasgelan (60 min)
1. Jarduera <b>Aurrezagutzak aztertuz</b>  Fitxa bat bete behar dute, ondare megalitikoei buruz zer dakiten erakusteko.	2. Jarduera <b>Trikuharriak harri bitxiak...</b>  Trikuharrien inguruko lehenengo edukiak ikasten hasi behar dira taldeko ekintzen bidez. Jarduera honek gaiarekiko duten jakin-mina handitzea du helburu.	3. Jarduera <b>Trikuharrien eraikuntza urratsak</b>  Jarduera honen bidez trikuharrien eraikuntza metodoa ulertu behar dute urratsez urrats. Honek 5. saioan egin behar duten irteerari begira, monumentu megalitikoak hobeto ezagutzen laguntzen du.	4. Jarduera <b>Ostilamendua sortuz</b>  Jarduera hau irteera baino lehen egin behar duten azkena da. Gela osoaren artean ostilamendurako piezak sortu behar dituzte, irteerara eraman beharko dituztenak. Irteeran egingo denaren azalpena eman behar zaie ikasleei.	5. Jarduera <b>Ibilbide hasierako azalpena</b>  Ibilbideko gidariak azalpen batzuk eman behar ditu txangoa hasi baino lehen. Horrekin batera, ibilbidearen mapa eman eta zer ikusiko duten azaldu behar die.  (20 min)	8. Jarduera <b>Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak Google Earth-en kokatuz</b>  Irteeran ateratako argazki bildumatik egokienak aukeratu eta google earth-en kokatu behar dituzte, mundu osoarentzat ikusgai egon daitezzen.  (30 min)
				6. Jarduera <b>Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak atera Google Earth-en kokatzeko</b>  Kamera batekin monumentuei argazkiak atera behar dizkiete ikasleek.  (Ibilbidean zehar monumentu bakoitzean)	
				7. Jarduera <b>Karrantzako tumulua eraikiz</b>  Ibilbidea egin ondoren, tumulu bat eraiki behar dute taldeka, gidariak emandako argibideei jarraituz.  (60 min)	9. Jarduera <b>Ikasitakoa aztertuz</b>  Fitxa bat bete behar dute, ondare megalitikoei buruz zer ikasi duten erakusteko.  (30 min)

Taula honetan unitate didaktikoko jarduerak ageri dira modu logiko batean antolaturik. Irteeraren aurretik, bitartean eta ondoren egin behar dituzten jarduerak ezberdindu beharra dago. Irteeraren aurretik hainbat jarduera egin behar dituzte ezagutza berriak jasotzeko eta haien jakin-mina pizteko. Lau dira (1., 2., 3. eta 4. jarduerak) aurretik egin beharreko jarduerak eta horiek aste bateko egunetan zehar banaturik egin daitezke adibidez.

Irteeraren eguna (5. saioa) Karrantzako monumentu megalitikoak dauden inguruan igaro behar dute. Ibilbidea egiteko 2 ordu inguru behar dira gehienez eta gainera, bide horretan zehar 3 jarduera (5., 6. eta 7. jarduerak) egin behar dituzte beraz, eskolako egun oso bat behar da saio honetarako.

Behin irteera eginik, ikasgelan azken bi jarduerak egin behar dituzte unitate didaktikoari amaiera emateko eta saio hauetan zehar zer ikasi duten erakusteko.

### **Sistema metodologikoa**

Unitate didaktiko honen sistema metodologikoa ikerketakoa da. Proposatzen diren jarduera didaktikoak lehen hezkuntzako umeekin praktikan jarri eta ondoren horietatik informazioa ateratzen da.

## Jarduera fitxak

Jarduera fitxak hiru bloketan daude antolatuz, irteeraren aurretik, bitartean eta ondoren.

### Irteeraren aurretik

<b>1 - Aurrezagutzak aztertuz</b>	
<b>Iraupena</b>	30 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Ikasleak bakarka
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek monumentu megalitikoaren inguruan dituzten jakintzak ezagutzea.</li> <li>- Ikasleek unitate didaktikoa baino lehen dituzten ezagutzak aztertzea, amaieran dituztenekin alderatzeko.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	- Hausnarketarako gaitasuna.
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Monumentu megalitikoak.</li> <li>- Kultura ondarea.</li> <li>- Historiaurrea.</li> <li>- Naturan kokatutako artea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Ikasleak bakarka daudelarik, irakasleak fitxa banatuko die ikasleei haiek erantzun dezaten. Ez die inolako laguntzarik emango. Ikasleek ez badakite erantzuten, zuriz utz dezakete, haien ezagutzak aztertzeke delako.
<b>Materialak</b>	- Aurre ezagutzak aztertzeke fitxa. (1. Eranskina)

<b>2- Trikuharriak harri bitxiak...</b>	
<b>Iraupena</b>	60 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Talde osoa bikotetan banaturik
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaso dituzten argazkien inguruko informazioa lortzea.</li> <li>- Fenomeno megalitikoak ezagutzea.</li> <li>- Beste garai batzuetako heriotza erritoak ezagutu eta ulertzea.</li> <li>- Obra edo jarduera garatzeko ardura izatea, bakarkako obra izan nahiz taldekoa izan.</li> <li>- Obra batean nabarmentzen diren balio estetikoak eta plastikoak zehaztea: faktore pertsonalak, sozialak, plastikoak, etab.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.</li> <li>- Ikerketarako eta informazioaren tratamendurako gaitasuna.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako ondare megalitikoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>- Objektu horiek sortu ziren testuinguruen ezaugarriei buruz eztabaidatzea eta ikertzea.</li> <li>- Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta hausnarketa egitea intenzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.</li> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Bizitza ulertzeko beste modu batzuk ezagutzea eta heriotza bizitzaren gertakari naturala dela onartzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Irakasleak email bat bidaliko die ikasleei. Bertan Karrantzako trikuharrien argazkiak ageri dira. Behealdean, hainbat galdera dituzte erantzuteko, eta hori egin ahal izateko interneten bilatu beharko dute informazioa.
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailuak.</li> <li>- Jasotako emaila. (2. Eranskina)</li> </ul>

<b>3- Trikuharrien eraikuntza urratsak</b>	
<b>Iraupena</b>	60 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Talde osoa
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako monumentu megalitoak nola egiten zituzten ulertzea.</li> <li>- Beste garai batzuetako heriotza erritoak ezagutu eta ulertzea.</li> <li>- Obra jakin batean nabarmentzen diren balio estetikoak eta plastikoak zehaztea: faktore pertsonalak, sozialak, plastikoak, sinbolikoak, etab.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako ondare megalitoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> <li>- Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta hausnarketak egitea intenzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Irakasleak fitxa bat emango dio ikasle bakoitzari. Fitxa horretan irudi batzuk daude, trikuharri bat eraikitze urratsak azaltzen dituztenak. Ikasleek bikoteka lan eginez, irudi bakoitzean zer egiten ari diren azaldu behar dute.
<b>Materialak</b>	- Trikuharrien eraikuntzaren irudiak dituen fitxa. (3. Eranskina).



<b>4 - Ostilamendua sortuz</b>	
<b>Iraupena</b>	60 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Ikasle talde osoaren artean. Bakoitzak bere zeregina eginez.
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste garai batzuetako heriotza erritoak ezagutu eta ulertzea.</li> <li>- Lan plastikoak taldean egitea</li> <li>- Ostilamendua zer den ezagutu eta Paleolitoko ostilamenduaren antzeko piezak sortzea.</li> <li>- Obra edo jarduera garatzeko ardura izatea, bakarkako obra izan nahiz taldekoa izan.</li> <li>- Obra jakin batean nabarmentzen diren balio estetikoak eta plastikoak zehaztea: faktore pertsonalak, sozialak, plastikoak, etab.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako ondare megalitikoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> <li>- Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta hausnarketak egitea intenzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<p>Irakasleak ikasleei jakinarazi behar die irteera bat egingo dutela Karrantza haranera, han dauden monumentu megalitikoak ikusteko. Irteeraren aurretik, ikasleek ostilamendurako piezak sortuko dituzte irteeran eraikiko duten tumuluaren barnean kokatzeko. Horretarako talde osoak egingo du lan, bakoitzak bere pieza sortuz ikasle guztiek beren ekarpena egin dezaten.</p> <p>Irakasleak aukera emango die ikasleei nahi duten pieza sortzeko.</p> <p><u>Hauen artean aukeratuko dute:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lepokoak. ( Haziekin, txirlekin, hezurrekin, harritxoekin...)</li> <li>- Eskumuturrekoak. ( Haziekin, txirlekin, hezurrekin, harritxoekin...)</li> <li>- Zeramika ontziak. (Buztinarekin, plastilinarekin...)</li> <li>- Lanerako tresnak (Harria, egur zati bat eta sokaz)</li> <li>- Hezurak (Plastilinarekin).</li> <li>- Gezien puntak. (Harri zati zorrotzekin, plastilinarekin)</li> <li>- Fossilak (Ekarritakoak)</li> </ul>
<b>Materialak</b>	- Ostilamendua sortuz. (4. Eranskina).

## Irteeran zehar

<b>5- Ibilbide hasierako azalpena</b>	
<b>Iraupena</b>	20 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Ikasle guztiak batera borobil bat osatuz
<b>Lekua</b>	Ibilbidearen hasiera gunean
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunean zehar jarraituko den ibilbidea ezagutzea.</li> <li>- Egunean zehar egingo dituzten jarduerak azaltzea.</li> <li>- Ikasle taldeak antolatzea egunean zehar egingo dituzten jarduerak garatu ahal izateko.</li> <li>- Pentsamendu zientifikoa eta teknikoa garatzea eta hura erabiltzea jasotzen den informazioa interpretatzeko, aurreikuspenak egiteko eta erabakiak ekimenez eta autonomia pertsonalez hartzeko.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Jarduera hau eguneko lehen egitekoa izango da. Ikasleak ibilbideko hasiera puntura heldu dira eta ibilbideko gidariak egunean zehar egingo dutenaren inguruko azalpen laburra emango die borobil handi batean kokaturik daudenean. Egingo dituzten jardueren azalpena, ibilbidearen mapa eta ibilbideko arauak emango dizkie.
<b>Materialak</b>	- Ibilbidearen mapa eta informazioa. (5. Eranskina)

<b>6 - Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak atera Google Earth-en kokatzeko</b>	
<b>Iraupena</b>	Monumentuak ikusi ahala, ibilbide osoan zehar.
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	5-10 ikasleko taldeak
<b>Lekua</b>	Ibilbidean zehar
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak egitea ondoren aztertu eta Google earthen kokatzeko.</li> <li>- Google earthen edonorentzat ikusgai egongo diren Karrantzako monumentu megalitoen eta inguruaren argazkiak ateratzea.</li> <li>- Kultura ondarearen eta zehazki Karrantzako monumentu megalitoen kontserbazioa ziurtatzea belaunaldi berriak horretarako heziz.</li> <li>- Ikasleak kultura ondarrera eta bere ingurunera hurbilduz, haiengan kultura ondarearekiko errespetuzko jarrera sortzea eta honek duen garrantzia balioztatzea.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako ondare megalitoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>- Naturagunean eta arte-ingurunean dauden elementuen behaketa eta zentzumen bidezko azterketa.</li> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> <li>- Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Ibilbidea egin ahala, ikasleek tumulu eta dolmenen argazkiak atera beharko dituzte Google earthera igotzeko. Horretarako, kamera bat erabili beharko dute. Argazkietan ez da jenderik agertu behar.
<b>Materialak</b>	- Argazki kamera.

<b>7 -Karrantzako tumulua eraikiz</b>	
<b>Iraupena</b>	60 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	5-10 ikasle bitarteko taldeak
<b>Lekua</b>	Ibilbidearen amaiera gunean.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle taldearen artean Karrantzako tumulu baten maketa eraikitzea.</li> <li>- Bakarka eta taldean, aurrez ezarritako helburuetatik abiatuta objektu bat egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, eta fase bakoitzaren amaieran lanaren egoera berrikusi eta baloratzea</li> <li>- Ideia edo helburu baten arabera, material desberdinekin hiru dimentsioko formak eraikitzea.</li> <li>- Lan plastikoak taldean egitea</li> <li>- Obra jakin batean nabarmentzen diren balio estetikoak eta plastikoak zehaztea: faktore pertsonalak, sozialak, plastikoak, etab.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>- Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, komunikatu eta lan egiteko gaitasuna.</li> <li>- Hainbat eratako materialak erabiliz lan plastikoak egiteko gaitasuna.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Karrantzako ondare megalitoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>- Objektu horiek sortu ziren testuinguruen ezaugarriei buruz eztabaidatzea eta ikertzea.</li> <li>- Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta hausnarketak egitea intenzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.</li> <li>- Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> <li>- Bizitza ulertzeko beste modu batzuk ezagutzea eta heriotza bizitzaren gertakari naturala dela onartzea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<p>Irakaslea gidaria izango da. Lana egiteko urratsak emango dizkie eta ikasleek beren eskuez egingo dute lan.</p> <p>Ikasleek taldean egin beharko dute lan, tumulu bat eraiki behar duen komunitatea balira bezala, bakoitzaren lanaren bidez denen arteko lan bat eraikitzeko.</p>
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tumuluaren planoak eta eraikitzeko urratsak. (6. Eranskina)</li> <li>- Mendiko harriak.</li> <li>- Lurra.</li> <li>- Gelan egindako ostilamendua.</li> </ul>

## Irteeraren ondoren

<b>8- Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak Google Earth-en kokatuz</b>	
<b>Iraupena</b>	30 minutu
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Bakarka.
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Karrantzako monumentu megalitoen argazkiak egitea ondoren aztertu eta Google earthen kokatzeko.</li> <li>– Google earthen edonorentzat ikusgai egongo diren monumentu megalitoen eta inguruaren argazkiak ateratzea.</li> <li>– Kultura ondarearen eta zehazki Karrantzako monumentu megalitoen kontserbazioa ziurtatzea belaunaldi berriak horretarako heziz.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Arte eta kultur gaitasuna.</li> <li>– Informazioaren tratatzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.</li> </ul>
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Karrantzako ondare megalitoak eta bertako ondare historiko, artistiko eta etnografikoa.</li> <li>– Naturagunean eta arte-ingurunean dauden elementuen behaketa eta zentzumen bidezko azterketa.</li> <li>– Naturan kokatuta dauden arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.</li> <li>– Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpen eta besteen lanekiko errespetua eta kontserbatzeko grina.</li> <li>– Informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<p>Ibilaldia egina dago jadanik eta ikasleek bertan ateratako argazkiak izan behar dituzte gordeta. Argazki horien artean onenak aukeratu eta internetera igo behar dituzte orain.</p> <p>Horretarako Panoramio aplikazioa erabili behar dute. Argazkia igo behar da eta bakoitzean hauek jarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Kokapena.</li> <li>-Izenburua.</li> <li>-Deskribapena.</li> <li>-<u>Estekak</u>. Adibidez: Tumulua, trikuharria, monumentu megalitoa, Enkarterriak, Karrantza...</li> </ul> <p>Argazki hauek Google earthen onartzeko denbora behar da. Behin argazkiak onartuak direnean, mundu osoarentzat egongo dira ikusgai.</p>
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Google earth aplikazioa.</li> <li>– Ordenagailua.</li> <li>– Ibilaldian ateratako argazki bilduma.</li> </ul>

<b>9- Ikasitakoa aztertuz</b>	
<b>Iraupena</b>	30 min
<b>Irakasle kopurua</b>	Irakasle bat
<b>Ikasle kopurua eta antolaketa</b>	Ikasleek bakarka
<b>Lekua</b>	Ikasgela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek monumentu megalitikoaren inguruan dituzten jakintzak ezagutzea.</li> <li>- Ikasleek unitate didaktika baino lehen dituzten ezagutzak aztertzea, amaieran dituztenekin alderatzeko.</li> </ul>
<b>Gaitasunak</b>	- Hausnarketarako gaitasuna.
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Monumentu megalitikoak.</li> <li>- Historiaurrea.</li> <li>- Naturan kokatutako artea.</li> <li>- Kultura ondarea.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Ikasleak bakarka daudelarik, irakasleak fitxa banatuko die ikasleei haien erantzun dezaten. Ez die inolako laguntzarik emango. Ikasleek ez badakite erantzuten, zuzen utz dezakete, haien ezagutzak aztertzeko delako.
<b>Materialak</b>	- Aurrezagutzak aztertzeko fitxa. (1. Eranskina)

### **Unitate didaktikoaren ebaluaketa**

Lehenik eta behin, hasierako ebaluazioa egiteko fitxa bat erabiltzen da (1. Eranskina), ikasleek fitxa hori beteko dute unitate didaktikoa hasi baino lehen. Unitate didaktikoaren amaieran fitxa berdina bete behar dute emandako aldaketak aztertu eta hauetatik emaitza fidagarriak ateratzeko.

Bestalde, ebaluazio jarraitua ere egiten da ikasleak unitate didaktikoko jarduerak (1. jarduera, 2. jarduera, 3. jarduera, 7. jarduera, 9. jarduera) egitean nola aritu diren aztertzeko.

## **Emaitzak**

Lauro Ikastolan 4. mailako ikasle taldeak ez zuen monumentu megalitikoaren ezta Paleolitiko edo Neolitiko garaia inguruko edukirik landu lan honetako esku-hartzeak egin ziren arte. Alde horretatik ikusten ari ziren guztia berria zen haientzat eta hasierako saioetan ikus zitekeen gai honen inguruan zituzten ezaguerak oso urriak zirela. Emaitzak ateratzeko, ikasleek unitate didaktikoaren hasieran eta amaieran betetako fitxak (1. Eranskina) erabili ziren.

Betetzeko fitxetan (7. Eranskina) agertzen den bezala, hasieran haietako gehiengoak ez zekien zer ziren harri hauek eta honelako ideiak sortzen zitzaizkien hauen funtzioaz hausnartzean: etxeak ziren, euritik babesteko lekuak, animaliak sartzeko... Honi dagokionez, esku-hartzeak egin eta gero lortutako emaitzetan islatzen denaren arabera, ikasle guztiek ulertu zuten monumentu megalitikoak antzinako arbasoek sortu eta erabilitako hilobiak zirela eta hildakoak gurtzeko balio zutela. Hasiera eta amaierako fitxetan ikus daitekeen aldaketarik handiena, monumentuen funtzioaren ingurukoa da, ikasle guztiek aldatu zituztelako haien ideiak atal honetan.

Monumentu megalitikoaren itxura eta ezaugarriak dagokienez, esku-hartzeak egin aurretik eta ondoren ikasleek egindako behaketak ez ziren oso ezberdinak izan honen kanpoaldeko itxurari dagokionez. Orokorrean idatzitako ideiak hauek ziren: harriz eginda daude, mendian daude, eskuekin egin ziren, material naturalez daude eginak, grisak dira. Ideia edo behaketa horiek ez ziren asko aldatu esku-hartzea egin eta gero.

Monumentu megalitikoaren eraikuntzari dagokionez, ikasleen erantzunak ez ziren oso ezberdinak izan hasierako eta amaierako fitxetan. Gehienek eraikuntza hauek egitea oso zaila zela eta dena eskuekin egin zegoela adierazten zuten, baita pertsona askoren laguntza behar zela ere.

Nabarmentzekoa da, hala ere, ikastetxeko zelaian egindako monumentuaren eraikuntzan ikasleek zuten zirrara eta gogo. Haien kabuz monumentu megalitikoaren maketa eraikitzeko taldeak sortu zituzten eta Neolitiko garaian egongo balira bezala antzetzuz monumentuok eraiki zituzten egitekoak banatuz. Taldean lan eginez, guztiak izan ziren ekintza honen partaide eta beren artean komunikatuz eta elkarri lagunduz monumentua eraikitzen joan ziren nik emandako planoak jarraituz (8. Eranskina). Monumentuen plano eta eraikuntza urratsak ulertu eta interpretatzerakoan ez zuten arazorik izan. Ikastetxeko zelaian mugitu ziren, eraikuntzarako pieza egokienak bilatuz eta apurka-apurka monumentua eraikiz.

Egindako maketa txiki hauek Karrantzako Haranean aurki daitezkeen monumentu megalitikoaren oso antzekoak ziren eta behar bezala eraikitzeko gai izan ziren.

Behin monumentua amaitu zutenean, bakoitzak ostilamendurako pieza bat sortu zuen makilatxoekin, txirlekin eta harri koxkorrekin. Ostilamendu hori sortzean sormen handia izan zuten eta antzinako gezi, lepoko nahiz tresnak imitatzeaz gain, haiek zeuzkaten jostailutxo edo bestelako objektu txikiak ere sartu zituzten eraikuntzetan.

Ikusgarria izan zen, ikasleek eraikuntza egin bitartean eta bukatzean bizi izan zuten zirrara antzinako arbaso haiek imitatuz eta haiek izango balira bezala antzetzuz.

## **Ondorioak**

Lan honen hasierako helburu nagusia kultura ondarea lantzeko baliagarria den eta Karrantzako Neolitikoko monumentuetan oinarritua dagoen unitate didaktiko bat aurkeztea izan da. Horri dagokionez, unitate didaktikoa, erabilgarria eta eraginkorra dela frogatua geratu dela esan dezakegu. Egindako esku-hartzeetatik ateratako informazioaren bidez islatu da, alde batetik, eduki hauek modu horretan irakasteak ikasleengan piztu duen interesa eta beste aldetik, kultura ondarearen inguruko ideia eta kontzeptu berriak barneratu dituztela.

Baiezaturik geratu da, kultura ondarea ikasgelan baliabide didaktiko gisa erabiltzea eraginkorra dela bestelako jakintzak ere bereganatzeko, lurralde bateko historia edo gizarte baten ohitura eta jatorriak ulertzeko besteak beste. Gainera, jardueretan taldeetan lan egin, eskulanak eraiki, informazioa bilatu eta IKT-ak erabili behar izan dituztenez hainbat izan dira esku-hartzeen bidez landu diren gaitasunak. Komunikatzeko gaitasuna eta taldean lan egitearena izan dira jardueren garapenean zehar argien ikusi diren gaitasunak.

Monumentu megalitiko eta orokorrean kultura ondarearen kontserbazioari dagokionez, ezin izan da frogatu umeengan horretarako grina edo beharra sortu denik, izan ere, egindako fitxetan eta esku-hartzeen garapenean ezin daiteke aurkitu horren ebidentziarik.

